



Laburrak::

noticies | berriak



Urtarrilaren 19an San Sebastianetako Afaria

Donostiako Danborrada zuzenean eskeiniko da



Datorren urtarrilaren 20an San Sebastian eguna ospatuko da eta dagoeneko Bartzelonako Euskal Etxean ohitura den bezala, afari zoragarri batekin hasiko gara eta Gipuzkoako hiriburuko Danborrada zuzeneko retransmisioarekin jarraitu ahal izango dugu. Afaria ostegunean izango da 21:30etan Euskal Etxean bertan. Egun horretarako menua ondokoa izango da: Txipiroi nahaskia, arrain zopa, arkume hanka, gaztazko tarta.

Afari honen prezioa 20 koa izango da bazkideentzat eta 26 koa bazkide ez direnentzat. Afarira joateko asmoa izanez gero lehen bait lehen izena ematea komeni da eta izena emateko idazkaritzatik pasa zaitezke edo 93.310.22.00 telefonora deitu dezakezue urtarrilaren 17a baino lehen. Arrazoi espezifikoengatik menua aldatu nahiko lukeenak izen emateko orduan esanez egin dezake.

 MENUA > Txipiroi nahaskia, arrain zopa, arkume hanka, gaztazko tarta **20**
(sagardoa, ardoa, patxarana eta kafea)

noticies | berriak



"Euskal Etxea Bartzelona"-ko XI. Mus-Txapelketa

Txapelketa 2006ko otsailaren 17, 18 eta 19an ospatuko da



laz izan zuen harrera ona ikusita, berriz ere, gure elkarteko mus-txapelketa prestatzen ari gara. Aurten mus-txapelketaren XI. edizioa izango da eta parte hartzeko hasierako gogo bera izatea espero dugu. Txapelketa 2006ko otsailaren 17, 18 eta 19an ospatuko da. Urtarrilaren 23tik aurrera Euskal Etxeko idazkaritzan izen ematen has zaitezke, lehengo urtean bezala, bazkideek 10 ordainduz eta bazkide ez direnek 20 ordainduz. Dakizuen moduan, txapelketa hau irabazten duenak Euskal Etxeen Federazioak antolatzen duen urteroko Txapelketa Nagusian parte hartzeko sarrera irabaziko du. Aurten, Txapelketa Nagusi hau gure Euskal Etxean ospatuko da; izan ere, lehengo urteko bikoteak gure etxera ekarri baitzuen txapela.

Euskal Jaia Bartzelonan

Kataluniako hiriburuan bi talde euskaldunen kontzertuez gozatu ahal izango dugu hilabete honetan:

::SORKUN::

Urtarrilaren 20an 22etan,
Sidecarren (Heuras Kalea, 4-6)

::SAGARROI::

Urtarrilaren 21ean 22:30etan
Nou Barriseko Ateneu Popularren
(Portlligat kalea z/g)

Argazki Erakusketa

Urtarrilaren 10etik aurrera, azaroko Euskal Herria Sona jaialdian zehar Oriol Clavera eta Mireia Comasek egindako argazkiak izango dira ikusgai Euskal Etxean. Argazkiok otsaila bukaera arte egongo dira ikusgai. Zuen gustukoak izatea espero dugu!

HEGOKOAK zuzenean

Datorren urtarrilaren 13an iluntze atsegin bat pasa dezakezue gure Elkartean. 20etatik aurrera, zizka-mizka goxo bat prestatuko dizuegu, jarraituko dion plater fuerterako berotzen joan zaitezten: 21:30etatik aurrera "Hegokoak" taldeak eskainiko digun kontzertua. "Hegokoak" taldearen buru dugu Eneko Alberdi eta ermito afrikar eta mediterraniarrak uztartzen ditu euskarazko hainbat kantutan. Ziur gaude proposamen honekin ondo pasako duzuela! Gainera, kontzertu honekin, 2006. urtean zehar hilean ostiral batez egingo ditugun formatu txikiko kontzertuen ziklo bat irekiko dugu. Zuen zain egongo gara!



* Haurren txokoa | Espai Quitxalla



Olentzero Euskal Etxean

Gure ikazkin maitea Euskal Etxean izan zen
Haurren Txokoko umeak bisitatzen



Bigarren urtez, Euskal Etxera euskaldunontzat oso garrantzitsua den pertsonaia bat etorri zen. Bere ohiko ibilbidea aldatuz, abenduaren 21eko arratsa gurekin pasa zuen gure "Haurren Txokoa"n parte hartzen duten haurren zorionerako. Olentzerok hainbat istorio harrigarri eta makina bat opari ekarri zituen gerturatu ziren guztientzat, eta haurrek sagardo pixka batekin eta beraiek kantatutako abesti polit batzuekin eskertu zioten, guztion gozamenerako.

► Cultura | Kultura



Euskararen Eguna

Nazioarteko Euskararen Egunean gure hizkuntzaren egoera azaldu zuen HABEko arduradunak

Euskaraen Nazioarteko Eguna zela eta, pasa den abenduaren 15ean hainbat ekintza antolatu ziren. HABEko Jose Fco. Zinkunegiren eskutik "Euskara munduan" izeneko hitzaldi bat ikusentzun ahal izan zuten bertaratutako guztiek eta jarraian, zizka-mizka batekin sabela bete ahal izan zuten. Honen ondoren, gure elkarteko irakasle eta ikasleak parranda egitera animatu ziren!

Urtea ondo amaitzeko, Santo Tomas

Txistorra eta sagardoaren laguntzarekin hainbat euskaldun eta katalan elkartu ziren

Zalantza izpirik gabe, gure bazkide eta lagunek gehien espero duten zita Santo Tomas eguna izaten da. Euskal Etxean ohitura den bezala, trikitixa, pandero eta bertsolariz lagundutako trikipoteo batekin ospatu genuen. "Baserri" euskal tabernan hasi ginen lehenengo txistorra pintxoak eta sagardo botilak dastatzen, Sagarditik pasa ondoren, festa Euskal Etxean bukatzeko. Dударik gabe, euskaldun nahiz katalanak elkartu eta giro onaz gozatzeko eguna izan zen..

► Egunkaria | Egunkaria



Kataluniako Parlament, Egunkaria alde berriro

Egunkaria auziaren artxibatzea eskatzeko ekintza solidarioa Katalunian

Abendua amaieran parlamentuko talde guztiak, PP izan ezik, Euskalduon Egunkariarekiko elkartasun deklarazio bat bateratu zuten. Legez besteko proposamena laster batean botatu eta onartuko dute. Horren inguruan zerbait jakin bezin laster informatuko zaituztegu..



durango'05



Dakizuen bezala, pasa den abenduaren 8, 9, 10 eta 11ean Durangoko 40. liburu eta disko azoka egin zen herri bizkaitarrean. Musika eta liburu maileentzat huts egiterik ez dagoen zita da berau, bertan aurkezten diren berriak direla eta. Zabalguna Dendatik, Durangora joaterik izan ez zenutenoi, edizio hauek gerturatu nahi izan dizkizuegu. Horregatik, dagoeneko dendan zuen eskura ditugu jarraian aipatuko ditugu izenburuak:

Liburuak

Bernardo ATXAGAREN LEKUAK
Unai ELORRIAGAREN VREDAMAN
Jon ARRETXEAREN KLEOPATRA
Harkaitz CANDREN NEGUKO ZIRKUA
Arnaldo OTEGIREN BIHAR EUSKAL HERRIA

Musika

Mikel Laboaren XORIEK
Doctor Deseoren METAMORFOSIS.
RIPen HISTORIA VIVA DEL PUNK
Anariren ZEBRA

urtarrileko egutegia

urt1020.00 EH SonaDG! Argaziak
Erakusketa. Oriol CLAVERA ta Mireia COMAS
(Euskal Etxean)

urt1320.00 HEGOKDAK zuzenean
(Euskal Etxean)

urt2021.30 Damborrada Donostiarra
(Euskal Etxean)

urt2022.30 SORKUN zuzenean
(Sidecarren)

urt2122.30 SAGARROI zuzenean
(Nou Barriseko Ateneu Popularraren)

ots18-19-2006 XI Mus-Txapelketa
(Euskal Etxean)